



AÑARBE (G. B.)

XABIER

Gure ANDONI (G. B.), berak eratutako «EREINTZA» antzerki taldearekin, beste errenderiar ospetsu baten omenaldian. MITXELÉN A'tar KOLDO, Euskaltzaindiko artu izan zanekoan (1961'garrean).

Agur Añarbe,

Aurten Epaillaren 4'an, KORTA'tar ANDONI, mundu ontatik betirako joan zitzaigun.

Ixillik eta apal bere bizitzan izan oi zan bezela. Askorentzat izen onek ez du ezer esango, bañan nerezat eta Errenderiar euskaldunentzat asko esan nai du. Euskaldun sutsua, Errenderiarra gogoz eta egitez, bere erriaren ain maitalea, bere idatz lanetan Errenderiko muga dan baserriaren izena artu zuan ezaugarri bezela. Erri maitale eta euskaldun bezela lan asko egiña du Errenderi ta Euskalerrriaren alde.

«OARSO» aldizkari onetan euskal idazle bezela bere laguntza beti izan genduan. Bear bearrezkoa izan zan urteetan batez ere; euskal idazleen bearra arkitzen genduanean, «Añarbe»ren luma beti gertu. Bere idatz lanetan euskera xamur eta errikoiean, erriko gertaera zar eta berriak azaldurik.

Errikoi eta oroigarriak bere lanak. Beste askoren artean, ona batzuek: 1961'go urtean «Gertaera zarrak», 1880 garren urtean Errenderiar Pelotarieri gertatuak (Ganix Elissatek eta Bengoetxeak egindako apustuaren gain); 1962'an «Euskal Kultura eta Errenderi» gai arturik, gure erriko goraberak sakonki azalduaz; 1963 garrean «Txirritarekin izketan» egindako lana oso atsegiña izan zan. Onela zioten bere itzak:

«Nola ordea galdetuko du norbaitek? Gaur gauz arrigarri asko gertatzen dira; ain aurreratuak bizi gera «Telestar» tramankuluaren bitartez, izketa aldi auxe izan degu. (Zeruan abotz bat entzuten da). Txirrita, zure galdez dira Errenderi aldetik onela asten zuan bere lana eta elkar izketa sakon bat izan zuan Txirrita zanarekin.

Azkenik, joan zan urtean, gaixo zegoela jakin arren, beregana joan giñan laguntza eske eta aldizkari onentzat bere azken lana «JAUTARKOL G. B.» izan zan. Bertan azaldu zigun bertsolari eta olerkariari izandu zion ederespen berezia. «Jautarkol» eta «Xenpelar izan bai ziran bere goi mailletakoak, bera bezela Errenderiarrak bai ziran.

Bere idatz lanak oso ezagunak izan ziran Euskal gaitan «ZERUKO ARGIA» asterokoan erriko bear eta goraberak argi ta txukun azalduaz.

Euskaldun egintza guztietan bear bearrezkoa izaten genduan bere laguntza. «Xenpelar'en» eriotzaren eun urte betetzerakoan egin ziran omenaldietan, baita ere «Ayalde» Errenderiar zanaren gogoangarritzat eratu ziran jai aldietan, prest egon zan bere iritziak azaltzeko.

Antzerki lanean—Errenderin ain aztuta arkitzen zan denboran—«Ereintzako» antzerki taldea eratu eta jarrai araztea bere gain artu zuan. Antzerki zalea izanik—antzeslari yayoa bere gazte denboran antzeslari erakusle ona benetan, bañan lan au ere, bere bizia izan zan antzekoa, gordean egiña, antzerki lekuan, xirrinda tartean antzeslarieri gorde lekutik erakutsiaz.

Naiz gordean eta ixillean lan egin, bere illetak ondo adierazi zuten jende askok ezagutzen zuala; eleiz bete betean berari agur egiten azken abesti otoietan, sendoki abestuaz «BETI BETIKO ZORIONA ILLERI ARREN EMAN JAUNA».

Euskaldun eta kristau bezela zintzo jokatu zenduan zure bizitz guztian eta argatik zure oroipena gugaz beti izango degu «OARSO» aldizkari onetan.

— AGUR AÑARBE. MUNDU ONTATIK JUN ZERA IXIL IXILLIK, ZU ILTZEAKIN, UTSUNE AUNDI BAT GURE ARTEAN UTZIRIK. OROITU ZAITE ZERU GOI ORTAN, JAINKOKARI ESKATURIK, ZUK UTZITAKO IKASKIZUNAK, EZ DEIZTELA GALDU IÑONDIK.

— IXILTASUNEZ LAN EGITEA, EMEN DA GAUZ EDERRENA. JARRI ZENDUEN ORLA IZATEKO ZURE GORPUTZEN ALMENA ON EGITEAK BETI OMEN DU SARIRIK BEREZIENA EMAN ZAIZOU ARGATIK, JAUNA, BETI BETIKO ATSEDENA.